

LANTOKIETAN BERTAN GENERO-INDARKERIARI AURRE EGITEA

2023KO A29

UGT Zerbitzu Publikoetako Emakumeen eta Gizarte Politiketako Idazkaritzan eta Ekintza Sindikalerako Idazkaritzan, bete-betean lan egiten dugu, lantokietan bertan genero-indarkeria prebenitzen dela eta, horrelako egoeraren aurrean, bertan lagundu eta zerbait egiten dela bermatzeko. Hori dela eta, honako hauxe proposatzen dugu:

1. Prebentzioan eta eskubideen bermean oinarritutako arreta-ikuspegia sustatzea genero-indarkeriaren inguruan.

Genero-indarkeria kultura patriarkalaren ondorioz sortutako arazo soziala da, eta horrelako egoera jasaten duten neskatilen nahiz emakumeen giza eskubideak urratzen ditu. Indarkeria hori desagerrarazteko, bete-betean lan egin beharra dago, prebentzioa nahiz banakako arreta eraginkorra bermatuta egon daitezen eta arriskuan dauden edo genero-indarkeriaren biktimak diren emakumeak berriro biktimizatuak izan gabe indarberritu daitezen.

2. Enpresetan eta administrazioetan, kalitateko enplegua lortzeko aukera ematea genero-indarkeriaren biktimei.

Nazioarteko azterlanetan eta ikerlanetan ateratako ondorioen arabera, genero-indarkeriak eraginak ditu indarkeria hori bizi duten emakumeen lanean bertan eta euren lanpostuan aurrera egiteko dituzten aukeretan. Lehentasunezkoa izan behar da genero-indarkeriari aurre egiten dioten erakundeek zein elkarteek eta enpresen nahiz administrazio publikoen arteko hitzarmenen bidez behar besteko lan-poltsak sortzea, kalitatez laneratzen direla bermatu ahal izateko. Indarkeria hori bizi duten emakumeen lanean bertan eta euren lanpostuan aurrera egiteko dituzten aukeretan. Lehentasunezkoa izan behar da genero-indarkeriari aurre egiten dioten erakundeek zein elkarteek eta enpresen nahiz administrazio publikoen arteko hitzarmenen bidez behar besteko lan-poltsak sortzea, kalitatez laneratzen direla bermatu ahal izateko.

3. Berdintasunean eta giza eskubideetan oinarritutako lan-kultura bultzatzea, lantokiak tratu oneko leku seguruak direla bermatzeko.

Genero-indarkeria prebenitzeko eta aurre egiteko moduko lan-ingurune segurua sortu nahi izanez gero, behar besteko politikak eta jarduerak ezarri behar dira, era guztietako bereizkeria zein jazarpena debekatzeko eta, neurri zehatzen bitartez, emakumeen zein gizonen berdintasuna sustatzeko. Ekintza horiek agerikoak izan behar dira, goi-zuzendaritzaren babesa izan behar dute beti eta irmo-irmo ezarri behar dira erakunde osoan, harreman bortitza prebenitzeko eta egoera horri aurre egiten eta bizi-proiektua berreskuratzen laguntzeko.

4. Negoziaketa kolektiboan eta berdintasunerako planetan, genero-indarkeriaren biktimentzako lan-babeserako bermeak sartzea; esate baterako, protokoloen garapena eta behar besteko neurrien ezarpena, lantokian bertan sentsibilizazioa, prebentzioa, detekzioa eta laguntasuna bermatuta egon daitezten, erantzun espezializatua emateko beharrezkoak diren babes integraleko neurri guztiak kontuan hartuta.

5. Lantokian bertan genero-indarkeria artatzeko erabilitako baliabideak gehitzea edo sendotzea. Horrela, lana, familia eta bizitza bateragarri egiteko prozesuarekin eta baimenekin zerikusia duten eskubideak erabili ahal izango dira murrizketa ekonomikorik edo eszedentziarik gabe. Era berean, lanpostua aldatzeko aukera eskaini behar da, edo behar besteko neurri guztiak hartu behar dira, genero-indarkeriari eman beharreko arreta behar bezain integrala izan dadin.

6. Lantokietan bertan, genero-indarkeriaren inguruko sentsibilizatorako eta informaziorako kanpainak egitea, zertan datzan, nola prebenitu behar den eta aurreiritziak nahiz estereotipoak nola saihestu behar diren ulertzeko eta horien arretarako dauden baliabideak zein diren jakiteko. Aldi berean, kanpaina horien bidez, genero-indarkeria inolaz ere onartzen ez duen jarrera aktiboa hartzeko ere eskatu daiteke.

7. Langileak prestatzea, lantokietan bertan genero-indarkeriari aurre egiteko, prebenitzeko eta laguntzeko.

Nazioarteko eta nazio-mailako zenbait erakunde bat datoz gehienetan langileek genero-indarkeriaren sintomarik edo zantzurik antzematen ez dutela adieraztean. Hori dela eta, funtsezkoa da prestakuntza egokia ematea, lantokietatik bertatik horrelako egoerak antzemateko eta hori bizi dutenei laguntzeko.

8. Lantokietan bertan, genero-indarkeriari aurre egiteko laguntzaileak egotea. Enpresetan eta administrazio publikoetan, prestakuntza, baliabideak eta ordu-prestasuna dituzten langileak egon beharko liriateke, genero-indarkeriako egoerak antzemateko eta biktimei behar bezala laguntzeko.

